

## Plastiko bilketa zerbitzuan egindako aldaketen berri eman nahi dizugu

Bilketa modua poliki poliki aldatzen joateko asmoa, kalitate, garbitasun, erosotasun eta kontrol gehiagoko zerbitzu bat lortze aldera.

- Kalitatea esaten denean, esan nahi da biltzen den plastikoaren garbitasuna eta plastiko mota desberdinen arteko nahasketarik gabea izatea.
- Garbitasuna: bilketa egiten den puntuetan gaur egun sortzen den zaborrak ekiditze aldera.
- Erosotasuna: baserritarrentzat, batez ere kopuru asko dutenentzat erosoagoa den bilketa modua.
- Kontrola: norik zer ateratzen duen hobeto kontrolatu ahal izatea.

Horregatik, hasiera batean, plastiko gehien duten baserritarrei, beren etxean jasoko zaie plastikoa, horretarako banatuko zaizkien "big-bag" zakuen bidez.

Etxean plastikoa zaku handi horietan pilatzen joango dira eta urtean behin edo bitan jasoko zaie.

Eta orain arte bezala, baserritar txikientzako gaur egungo bilketa modua mantenduko da, puntuak mantenduz, baina bilketa maiztasuna txikituz. Lehengo puntuetan bilketa egingo da ondorengo hilabeteetan:

- **Apirilean, irailean eta abenduan. Beti bezala hileko hirugarren ostegunean.**

Lehen bezala Udalo jakinaraziko zaizue bilketa egin aurretik, zuek herriko baserritarrei abisua emateko.

Tolomenditik plastiko kopuru handienak dituzten baserritarrekin harremanetan jarri gara eta beraiekin zuzenean egingo dugu bilketaren antolaketa.

Edozein zalantzaren aurrean lasai deitu Tolomendira.

Tolosan, 2016ko martxoak 31